

PORTUGALETE, 2007-2010



ANDRE-GIZONEN
BERDINTASUNAREN ALDEKO
PLANA



PORTUGALETEKO UDALA
Gizarte Ongizatea

AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE
Bienestar Social

www.portugalete.org

PORTUGALETE, 2007-2010



**ANDRE-GIZONEN
BERDINTASUNAREN ALDEKO
PLANA**



Argitaratzaile: Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizate Saila

Aholkularitza teknikoa: MURGIBE, SL

Diseinua eta maketazioa: Estudio de Diseño BIGRAFI

Inpresioa: Gráficas Berriz

Edizioa: 2007ko uztaila

Ale kopurua: 3.000

LNZN: 84-922974-6-8

LG: BI-444-03

ZER-NON ZER-NON

1. Aurkezpena	7
2. Erakundeak eta legeak	9
3. Printzipio orokorrak	14
4. Planaren ezaugarriak	15
5. Estrategia ardatzak eta esku-hartzeko arloak	16
6. Kudeatzeko sistemak	18
7. Helburu orokorrak	19
8. Helburu zehatzak eta ekintzak	20
9. Helburuei lehentasuna eman	36
10. Helburuei noiz ekin	39
11. Ekintzei lehentasuna emateko fitxa eredia	41
12. Glosarioa	42




AGURRA AGURRA

Atsegin-atsegina da niretzat udalerritarroi Andre-Gizonen Berdintasunaren Aldeko II. Plan hau (2007-2010) eskaintzea, plan horri esker, hain zuzen ere, iraungo baitugu datozen lau urteotan ekintza positiborako politikak garatzen, gizartearen eremu guztietan, benetako berdintasunaren alde.

II. Plan honen helburu nagusia da I. Planari jarraitu eta, ahal izanez gero, hobetzea. Dakizuenez, Berdintasunaren Aldeko I. Planak funtsezko bultzada eman digu eskubide-berdintasunerantz eta aurrera egiteko modua ere eman digu berdintasuna ezartzen, hala udal sail guztiak nola portugaletetarrak ere horren jakitun izan daitezten.

Genero desberdintasuna gure gizarte modernoan konpongabeko akatsa da oraindik ere. Azken urteotan aurrerakada nabarmena egin dugun arren, ezin diogu inolaz borrokatzeari utzi; aitzitik, ekinean iraun behar dugu desberdintasun mota guztiak galarazi arte.

Lantegi horretan lagungarri izango dugu II. Plan hau, agertzen dituen edukiak, abia-irizpideak eta asmoak orientagarri legez erabiliko baititugu datozen lau urteotan eta, horrela, apurka-apurka, berdintasuna eta genero-ikuspuntua sartuz joango dira gure pentsamoldean eta jokamoldean eta, azkenik, gure kulturaren eta errealitatearen osagai naturala izango dira, eta ez bakarrik erakundeen politikan, baizik eta eguneroko bizimoduan ere bai, azkeneko helburua delarik gizartearen andre-gizonak behin-betiko berdintasunean bizi gaitetzela.



Mikel Cabieces
Alkatea

AGURRA AGURRA

Berdintasunaren Aldeko I. Planak eskarmentu ederra eman zigunez gero Portugaleteko Udal honetan berdintasunaren aldeko politika sustatu eta indartzeko, erraz prestatu dugu II. Plan hau, Portugaleteko gizartearen beharrianak hobeto aztertu eta horiei egokiagoak zaizkien proposamenak eginda.

Bideari ekin berri dio, bada, II. Plan honek, esan bezala, aurrekoaren ebaluazioa eta emaitzak kontuan hartuta. Prestaketan herritarrek oro har hartu dute parte, emakumeen elkarteek, talde politikoen ordezkariak, berdintasun alorreko adituek eta udal teknikariak. Horiek guztiek egin dute beren ekarria eta buru-belarriz arituko dira, halaber, planak dakartzan neurriak eta ekintzak gauzatzeko.

Planaren asmoa da erantzun egokia ematea Portugaleteko emakumeei, zeharkakotasuna kontuan hartuta eta genero-ikuspuntua udal sail guztietan sarturik. Horrela, bada, lan-eremu izango ditugu prestakuntza, enplegua, familia eta lan bizimoduak bateratzea, hezkidetzak, osasuna, etxebizitza eta generoarekin zerikusia duten guztiak, azkenik, jarrerak aldatu ahal izateko eta berdintasuna eguneroko errealitate ikusgarria izan dadin.

Berdintasunaren Aldeko II. Plan honen onuradun zuzen-zuzenak Portugaleteko emakumeak izango dira, noski; baina, zehar-bidez bada ere, gizarte osoak edukiko du onura, den-denon bizi-kalitatea hobetuko du eta.

Horiek horrela, beraz, Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizate zinegotzia naizenez gero, ohore handia da niretzat etorkizunaren aldeko proiektu honen kidea izatea, horrelakoxea baita Berdintasun II. Plan honetan jardutea. Doakio, bada, horrekiko nire konpromisorik handiena.

Maria Dolores Ciordia
Gizarte Ongizate zinegotzia

1. Aurkezpena

Portugaleteko Udalak 2003. urtean bukatu zuen Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko I. Planaren prestakuntza. Horretarako, hain zuzen, eratu zen Aukera Berdintasunaren aldeko Udal Planaren Batzorde Mistoak, hau da, plana prestatu, martxan jarri, haren bilakaeraren aditu egon, aholku eman eta ebaluatzeaz ere arduratzeko.

Batzorde Mistoak hauek guztiak ditu osakide: udaletxeko langileak, talde politikoak, udalerriko elkarteek ordezkariek eta emakumeen mugimenduko ordezkariek ere bai.

Plana prestatzeko prozesua benetan bitxia eta berria izan da, helburu nagusia izan baitu ahalik eta gizarte agente gehienak inplikatzeko.

Batzorde Mistoak, udaletik kanpoko adituek dinamizatu eta koordinaturik, Berdintasunaren aldeko II. Planaz ere arduratu da.

I. Planaren indarraldia 2006an bukatzekoa zenez gero, irailean bertan ekin zion Udalak bigarrena prestatzeari, lehenengoan erabilitako metodoa, parte-hartzea erraztearen aldekoa, erabiliz.

Sei hilabetetan, bada, bederatzi saio egin du Batzorde Mistoak, abiapuntutzat hartuta, batetik, erakundeentzako testuingurua, eta testuinguru juridikoa ere bai, berdintasunaren aldeko politikak sortzeari dagokionez; bestetik, lehen planaren ebaluazioa; eta hirugarrenik, lan-eremuak definitzea, jarduteko ardatzak Euskadi Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren aldeko IV. Planak dakartzan berberak izanik.

Hogei bat gizon-emakumek (teknikariak, politikariak, elkarteetakoak) jardun dute, bada, arazoak definitzen eta aukerak bilatzen, berdintasunaren aldeko udal politikak aurrera egin dezan. II. Plan honen zirriborro moduko zerbait herritarren aztergai egon da Udalaren web gunean.

Halaber hitz egin dugu Batzorde Mistoan parterik hartzen ez duten udal sailletako arduradunekin, haien iritziak entzuteko eta planari egin nahi zioten ekarria jasotzeko xedez.

Horrela lortu dugu, bada, Portugaleteko Udalak datozen lau urteotan ibili behar duen bidean, ordezkariek politikoak eta elkarteetakoak, teknikari adituak eta II. Planaren jarduketekin zerikusia izango duten guzti-guztiak solaskide izatea.

2. Erakundeak eta legeak

Azken urteotan lege eta arau ugari onartu dira nazioartean, Europan, Estatuan eta udalerrian, horien guztien xedea andre-gizonen aukera-berdintasunerako eskubidea aintzat hartzea delarik. Plan hau, bada, erakunde eta lege frankok babesten dute.

NAZIOARTEAN

- Nazio Batuen Gutuna. San Frantzisko, 1945eko ekainaren 26a.
- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Nazio Batuen Batzar Nagusiak egina 1948ko abenduaren 10ean.
- Eskubide Zibil-Politikoen Nazioarteko Ituna. Nazio Batuak. New York, 1966ko abenduaren 19a.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. Nazio Batuak. New York, 1966ko abenduaren 19a.
- Emakumearen kontrako Bazterkeria mota guztiak deusezteko Konbentzioa (CEDAW). Nazio Batuak. New York, 1979ko abenduaren 18a. Espainiak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen.
- Res AG 48/104 Deklarazioa, Nazio Batuen, emakumearen kontrako indarkeria deusezteari buruzkoa. Batzar Nagusiak egina Vienan, 1993ko abenduaren 20an.
- Nazio Batuen mundu konferentziak, giza eskubideei buruzkoak:
- Emakumeei buruzko mundu-konferentziak. Mundu osoan jarduteko proposamenak dira eta beste hainbat nazioarteko tresnaren oinarrian dautza:
 - Emakumeei buruzko I. Mundu Konferentzia. Mexiko, 1975.
 - Emakumeei buruzko II. Mundu Konferentzia. Kopenhage, 1980.
 - Emakumeei buruzko III. Mundu Konferentzia. Nairobi, 1985.
 - Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia. Pekin, 1995eko irailak 4-15. Bertan nabarmendu zen sexu-berdintasun eta bazterkeriarik ezaren garrantzia. Pekingo Deklarazioa onartu zen eta emakumearen eskubideak bermatzeko Jardun-Plataforma, ere bai..
 - New Yorkeko konferentziak. Pekingo Jardun-Plataforma berrikusi zen eta haren garapenaren emaitzak eta oztopoak ebaluatu ziren. Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2000ko ekainaren 10a.
- 1997/44 Ebazpena, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearena (1997).

EUROPAN

- Europako Hitzarmena, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babestekoa (ECHR), Europako Kontseiluarena. Erroma, 1950eko azaroaren 4a. Espainiak 1977ko azaroaren 24an berretsi zuen. 14. artikulua dakar sexu-berdintasun eta bazterkeriarik ezaren formula.
- Ministroen III. Konferentzia, Europako Kontseiluarena, emakume-gizonen berdintasunari buruz. Erroma, 1993ko urria.
- Ministroen IV. Konferentzia, Europako Kontseiluarena, emakume-gizonen berdintasunari buruz. Istanbul, 1997. Konferentzia horretan estatuei eskatu zitzaion jardun-plana prestatzea, emakumeen kontrako indarkeria deusezteko.
- Europako Kontseiluaren Bigarren Gailurraren Azken Deklarazioa. Strasburg, 1997. Estatuetakoa buruek berretsi zuten erabaki zutela emakumeek pairatzen duten indarkeria eta sexu-esplotazioaren kontra borrokatzea.
- Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen Gomendioa, emakumeak indarkeriatik babesteari buruzkoa. 2002ko apirilaren 30a.
- Erromako Ituna (1957ko martxoaren 25a), Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeko. 14. artikulua aipatzen du sexu-berdintasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioa. 114. artikulua (119. zaharra) aipatzen du emakumeek eta gizonen eskubide bera dutela, lana bera edo balio bereko lana eginda, ordainsari berbera jasotzeko.
- Europa Batasunaren Ituna (Masstrich, 1992ko otsailaren 9a). 6. artikulua dio berdintasun printzipioa ez dela oztopoa izango estatuek ekintza positiboko neurriak har ditzaten.
- Amsterdamgo Ituna, EBko hamabost herrialdeetako Kanpo Arazoetako ministroek izenpetua 1997ko urriaren 2an. Europa Batasunaren Itunaren 6. artikulua (F zaharra) aldatu zuen, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetuaren printzipioa sendotzeko. Gizon-emakumeen berdintasunari buruzko beste xedapen batzuk ere hartu zituen.
- Europako Konstituzioa ezartzeko ituna, Europako Kontseilua, Brusela, 2004ko ekainaren 18a. Genero berdintasunari dagokionez, I. atalak (I-2 artikulua) badio gizon-emakumeen berdintasuna EBren balioetako bat dela. I-3 artikulua, berriz, ezartzen du EBk sustatu egingo duela gizon-emakumeen arteko berdintasuna.
- EBren zuzentarau ugari.
- 806/2004/CE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, garapenaren kooperazioan gizon-emakumeen berdintasuna sustatzeko. Helburua du genero ikuspuntua politika guztietan sartzea.

ESTATUAN

- Espainiako Konstituzioa, 1978. 14. artikulua: *Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik. 9.2 atala: Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.*
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, langileen familia eta lan bizimoduak bateratzea sustatzekoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzekoa.
- 1/1995 Errege Dekretu Legislatiboa, martxoaren 24koa, Langileen Estatutua onartzen duena.
- 1251/2001 Errege Dekretua, familia eta lan bizimoduak bateratzeko legearen zati bat garatzekoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurrien gainekoa. Lege horren helburua da erantzun erabatekoa ematea emakumeen kontrako indarkeriari. Legea garatzen duten arauak.
- Lan-plana, emakume-gizonen berdintasunaren aldekoa (2006-2010) Europako Komunitateen Batzordearena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume-gizonen benetako berdintasunaren aldekoa.

AUTONOMIA ELKARGOA

- Batetik, Autonomia Estatutuaren 9.2 atalak berdintasuna aipatzen du. Bestetik, 1988an EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Institutua sortu zen. Geroago, 1991n Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana onartu zen eta, hortik abiatuta, beste hiru plan prestatu dira.
- 2005eko otsailaren 28an Eusko Legebiltzarrak 4/2005 Legea onetsi zuen, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Aldekoa. Eta 2006an EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Aldeko IV. Plana onetsi da.

UDALERRIAN

- Bizkaiko Foru Aldundiak 2000an Berdintasunaren Aldeko I. Foru Plana onetsi zuen eta 2007an, berriz, bigarrena.
- Portugaleteko Udala. Berdintasunaren Aldeko Hizkera-Eskuliburua. Udal Hizkeraren Estilo Liburua.

Emakume-Gizonen Berdintasunaren aldeko 4/2005 Legeak oso garbi definitzen ditu emakume-gizonen berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzari dagozkion zereginak eta herri botere guztiak behartzen ditu baldintzak ezarri eta oztopoak kentzera, emakume-gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin, eta berdintasuna politika eta ekintza guztietan sustatzera.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonak bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

- j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeez edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotoz kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.



3. Printzipio orokorrak

Portugaleteko Udalaren Berdintasunaren Aldeko II. Plan honen printzipioak 4/2005 Legearenak berak dira. Hona hemen:

- Tratu berdintasuna
- Aukera berdintasuna
- Aniztasun eta berdintasunaren errespetua
- Genero ikuspuntura kontuan hartzea
- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rol eta estereotipoak deuseztea
- Ordezkaritza orekatua
- Lankidetzeta eta koordinazioa

Portugaleteko Udalaren berdintasunaren Aldeko II. Plan hau prestatzean, bi estrategia paratu dugu udalerrian berdintasun-politikak ezartzeko: zeharkakotasuna (*mainstreaming*) eta ekintza positiboa.

ZEHARKAKOTASUNA (genero-mainstreaming)

Ezinbesteko estrategia da genero-politiken garapenean. Honela definitzen dute adituek:

Prozesu politikoen antolatzea (berrantolatzea), hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, erabaki politikoak hartzen ohi dituztenek genero-berdintasunaren ikuspuntua politika guztietan sartuta, maila guztietan eta aldi guztietan.

Zeharkakotasuna da, beraz, berdintasunaren inguruko ekintza guztien ardatza eta planaren diseinuari berari gehitzen dizkio gauzatzeko behar diren bitartekoak.

EKINTZA POSITIBOA

Aldi berean hartzen da kontuan, hau ere tresna eraginkorra izanik, ekintza positiboa, Europa Batasunaren jardun-egitarau askok egin duten bezala. Ekintza positiboa “tradiziozko” politika da aukera-berdintasunari dagokionez, genero-desberdintasunak sortzen dituen arazo zehatzak konpontzetik abiatuta. Europako Batasunaren Aukera-Berdintasunari buruzko Aholku Lantaldeak hone-la definitu du ekintza positiboa:

Estrategia mota bat da, itxuraz jardun-egitaraua aukera-berdintasuna egitateetan ezartzeko, horretarako aldi baterako erabakiak hartuta, horien xedea delarik gizarte praktikak eta sistemak sortzen duten bazterkeriaren kontra egin edo zuzentzea.

Estrategia biak, zeharkakotasuna eta ekintza positiboa, berdintasun-politiken betearaztearen osagarriak dira. Zeharkakotasuna aldaketa-eragile indartsua da eta denbora behar du ezartzeko, egiturari eragiten baitio. Ekintza positiboa, berriz, azkarragoa izaten da, desberdintasun-egoera zehatzei baitagokie.

4. Planaren ezaugarriak

- **L**au urteko iraupena du: 2007tik 2010era hain zuzen.
- Partaidetzaz prestatu du **Batzorde Mistoak**.
- Plan **ireki eta malgua** da: aldatu egin daiteke betearazi bitartean.
- Plan **ebaluagarria** da; ebaluazio-sistema dakar eta helburuak neurtzeko erakusgarri batzuk ere proposatzen ditu.
- **Estrategia ardatzak, esku-hartzeko arloak, helburu nagusiak eta zehatzak eta ekintzak** dakartza, udal sailek eta egile arduradunek epealdi zehatz batean egin beharrekoak.
- Udalerri osoari dagokio eta **politikarien, teknikarien eta herritarren konpromisoa** dakar.
- **4 estrategia-ardatz, esku-hartzeko 7 arlo, 25 helburu nagusi, 46 helburu zehatz eta 77 ekintza** dakar.

5. Estrategia ardatzak eta esku-hartzeko arloak

Ardatzek landu beharreko lehentasunezko gaiak ezartzen dituzte, denak berdintasun-politikei dago-kielarik. Hauexek dira ardatzak: zeharkakotasuna (*genero-mainstreaming*), emakumeen jabetzea eta gizartean eta politikan parte-hartzea, familia eta lan bizimoduak bateratzea eta erantzulekidetasuna eta emakumeen kontrako indarkeria. Ardatz horiek berak ezartzen ditu EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Aldeko IV. Planak.

1) Zeharkakotasuna

Zeharkakotasunari *mainstreaming* ere esaten zaio. 1987. urtean proposatu zuen aurreneko aldiz Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak. Zeharkakotasunaren zeregina da genero ikuspuntua kontuan hartzea; hau da, beti ere aintzat hartzea emakumeek eta gizonek egoera, baldintza, nahi eta behar desberdinak dituztela. Horretarako, helburu eta jarduketa zehatzak proposatzen ditu, desberdintasuna desegiteko eta berdintasuna sustatzeko politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta aldi guztietan: plangintza, betearazpena eta ebaluazioa.

2) Emakumeen jabetzea eta gizartean eta politikan parte-hartzea

Emakumeen jabetzeak eta gizartean eta politikan parte-hartzeak badakarte berez emakume eta gizonen berdintasuna sustatu eta bermatzea eta, zehatzago, emakumeen autonomia eta egoera indartzea.

3) Bizimoduak bateratzea eta erantzulekidetasuna

Asmoa da norberaren, familiaren eta laneko bizimoduak bateratu ahal izatea, gizonezkoek etxeko lanetan daukaten erantzulekidetasuna sustatuta, enpleguaren egiturak norberaren eta familiaren beharretara egokituta eta komunitate- eta gizarte-zerbitzuak hobetuta.


4) Emakumeen kontrako indarkeria

Plan osoak indarkeria aurrezaintzeko asmoa badu ere, ardatz hau zehatzago zuzentzen da indarkeria sexistaren kontra eta, horretarako, hainbat neurri eta baliabide paratzen du. Hona hemen indarkeria sexistaren definizio laburra: *indarkeria sexistakoak dira sexu ziozko indarkeriazko egitate guztiak, baldin eta, horren emaitza gisa, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa egiten bazaio edo sufrimendua eragiten bazaio emakume bati, horren barruan daudelarik hori guztia egiteko mehatxua, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, hala eremu publikoan nola pribatuan.*

Arloak esku-hartzeko eremuak dira, zeinen bidez jardungo baitugu berdintasunaren alde. Hona hemen Berdintasunaren Aldeko II. Udal Plan honi begira definitu ditugun arloak:

1. arloa: **UDALA**
2. arloa: **GIZARTE EKINTZA**
3. arloa: **OSASUNA**
4. arloa: **ENPLEGUA**
5. arloa: **HEZKUNTZA**
6. arloa: **AISIA ETA ASTI LIBREA**
7. arloa: **HIRIGINTZA**

Horri gehitu behar dizkiogu udal sailen ardura ez dela bukatzen ezinbestez esku-hartzeko arlo jakin bakar batean, baliteke-eta hainbat udal sail edo atalen eskumen-eremuak esku-hartzeko arlo bat baino gehiago hartzea. Hala eta guztiz, II. plan honen esku-hartzeko arloak egituratzeak ikuspegi oso eta garbia eskaintzen digu eta garbi esaten digu horretako bakoitzak zer egin behar duen berdintasunaren inguruko helburuak lortzeko. Horren ondorioz, geroago azalduko ditugun helburuek eta ekintzek diagnostikoan sumatutako beharrak dituzte oinarrian



6. Kudeatzeko sistemak

Planaren ardatz eta arloetatik datozkigun helburuak lortzeko, bada, hainbat egitura ezarriko dugu, plana bultzatu, haren bilakaeraren adi egon eta ebaluatzeko. Hona hemen egitura horiek:

- **Bultzatzeko egitura.** Bi organo izango dira horren osagarri:
 - Batzorde informatzailea. Plana kontuan hartuta, proposamenak prestatuko ditu, politikariek horien gainean erabaki dezaten.
 - Berdintasun teknikaria eta beste teknikari laguntzaile batzuk.
- **Udal koordinaziorako eta herritarren partaidetzarako egitura.** Berdintasunerako Batzorde Mistoa. Hauexek dira batzordearen osakideak: udal talde politiko guztien ordezkariak, udal sailtako teknikariak eta udalerriko elkarteak.
- **Udalen arteko koordinaziorako egiturak.** Hemendik aurrera ere Portugaleteko Udala BERDINSAREAn egongo da. Berdinsarea Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren kontrako Euskal Udalen sarea da.
- **Egitarauak prestatu, horien bilakaeraren adi egon eta ebaluatzeko bitartekoak.** II. plan honek **egitarauak** prestatzeko, urteroko ekintza-egitarauak prestatuko ditugu, urte bakoitzaren aurreko hiru hilabeteetan. Ekintza-egitarau horiek hauexek adieraziko dituzte:
 - ekintza bakoitzaren ardura duen sailaren edo entitatearen lan-planak: abiatzeko egoera, espero ditugun emaitzak, egin beharreko jarduerak, esku-hartu behar duten pertsonak eta entitateak, egutegia, aurrekontua eta erakuskariak.
 - ekintza-egitarau guztiek aurrekontu bana edukiko dute.

Berdintasun-**planen bilakaeraren adi egotea** oso inportantea da plan horien euren kudeaketan. Portugaleteko Udalean Batzorde Mistoa, koordinaziorako eta herritarren partaidetzarako egitura izanik, arduratuko da horretaz, tarteko txostenak eginez, aurreikusitako eta egindako lan-planak, zailtasunak, aurrerapenak eta abarrak erakusteko. Hori guztia sail edo entitate arduradun bakoitzak egingo du urtearen erdialdean gutxi gorabehera.

Ebaluazioa egiteko sistema paratuko da II. Plana indarrean hasi eta gutxira. Sistema horrek prozesua, tresnak eta ebaluatzeko erakuskariak hartuko ditu kontuan eta 2007an bertan jarriko dugu martxan.

7. Helburu nagusiak

	1. ardatza - Genero zeharkakotasuna	2. ardatza- Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartzea gizartean eta politikan	3. ardatza- Bateratzea eta erantzulekidetasuna	4. ardatza - Emakumeen kontrako indarkeria
1. ARLOA: UDALA	Udal sail guztien politikek eta ekintzek gero eta sarriago genero ikuspuntua hartzen dutela bermatu.	Udaletxeko emakumeen jabeakuntzaren aldeko prozesuak erraztu.	Herritarrei ohartarazi pertsona, familia eta lan-bizimoduak bateratzeak erakundeen eta gizakien gainean daukan eraginaz.	Udaletxe barnean bermatu indarkeriaren kontra borrokatzeko behar diren baldintzak.
2. ARLOA: GIZARTE EKINTZA	Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ongizate Sailaren jarduerak eta egitarauetan genero ikuspuntua sartu.	Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden edota pobreak diren udalerriko emakumeen jabeakuntzaren aldeko prozesuak erraztu.	Familiako kargak dituzten emakumeei bidea erraztu, pertsona, familia eta lan-bizimoduak batera ditzaten.	Udalerrian gizarte baldintza beharrezkoak bermatu, genero indarkeriaren kontra borrokatu ahal izateko.
3. ARLOA: OSASUNA	Genero ikuspuntua sartu Portugaleteko herritarren osasunarekin zerikusia duen guztian.	Emakumeen erabaki-hartzea ugaltu, haien osasun eta sexualitateari dagokionez.	Adinekoak edo ezgaituak zaintzen dituzten emakumeen osasuna hobetu.	Tratu txarrak jasan dituzten udalerriko emakumeen laguntzan esku-hartze egokia bermatu.
4. ARLOA: ENPLEGUA	Enplegu zerbitzuak andregizonen berdintasunera egokitu.	--	Udalerrian pertsona, familia eta lan bizimoduak bateratu ahal izateko baldintzak bermatu.	--
5. ARLOA: HEZKUNTZA	Udalaren hezkuntza baliabideetan genero ikuspuntua sartzen lagundu.	Ikastetxeetan ikasleen ordezkari-organoeetan emakume gehiago egotea sustatu.	Ikastetxeetan erantzulekidetasuna sustatu.	Tratu ona sustatu, udalerriko ikastetxeetan indarkeriazko eta sexismozko jokaera aurrezaintzeko.
6. ARLOA: AISIA ETA ASTIALDIA	Udalerriko aisia eta aisialdi-ko egitarauetan genero ikuspuntua sartu.	Aisia eta astialdiarekin zerikusia duten udal eremuetan emakume gehiago egon eta gehiago parte-hartu.	Aisia eta astialdi arloetan ere sustatu erantzulekidetasuna.	Emakumeen kontrako tratu txarrik agertzen ez duten bideojokoak erabiltzea sustatu.
7. ARLOA: HIRIGINTZA	--	Udal hirigintzan emakume gehiago egon eta sarriago parte hartu.	Udalerriko hirigintza prest egon dadila pertsona, familia eta lan bizimoduak bateratzeko.	Udalerriko emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetu.

8. Helburu zehatzak eta ekintzak

1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

1. ARLOA: UDALA

Helburu nagusia: Udal sail guztien politikek eta ekintzek gero eta sarrago genero ikuspuntua hartzen dutela bermatu.

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.1.1. Portugaleteko Andre-Gizonen Berdintasunaren aldeko Plana jakinarazi.	EM 1.1.1 Planaren edukiaren berri eman udalerriko gizarte eragile, enpresa eta herritarrei, informazio-orriak Udal web gunea, aldizkariak eta abarrak erabiliz.	Gizarte Ongizatea	Alkatetza, Komunikazioa, ikastetxeak, elkarteak, IGE	- Udaletxeok, herritarrek eta gizarte eragileek zein neurritan ezagutzen duten plana.
	EM 1.1.2. Udaletxeko teknikari eta politikariei eman planaren laburpen bana, zerikusia duten edukiak nabarmenduta.	Gizarte Ongizatea	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna, Alkatetza	
AZ.1.2. Hala udaletxean nola udalerrian andre-gizonen aukera berdintasuna kudeatzen duen egitura iraunkorra sortu.	EM 1.2.1. II. plan hau kudeatu eta sustatzeko berdintasun teknikari lanpostu iraunkorra sortu.	Alkatetza	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna, Gizarte Ongizatea	- Udalak berdintasun egitura iraunkorra edukitzea. - Batzorde Mistoa iraunkortzea. - Ebaluazio sistema egotea. - Urteko ekintzen planak egotea.
	AZ.1.2.2. Batzorde Mistoa sendotu, Berdintasun Plana koordinatuko duen egitura gisa.	Gizarte Ongizatea	Udalerriko sail eta entitate guztiak	
	AZ. 1.2.3. II. plana ebaluatzeko sistema prestatu eta ezarri.	Gizarte Ongizatea	Batzorde Mistoa, Berdintasun teknikaria	
	AZ.1.2.4. Urteko ekintzen planak prestatu.	Batzorde Mistoa	Udal sail guztiak	

1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

1. ARLOA: UDALA

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.1.3. Genero ikuspuntua sartu udal kudeaketan.	AZ.1.3.1. Lan taldeak antolatu udal sail guztien egitarauetan genero ikuspuntua sartzeko.	Politikariak, sailtako zuzendariak	Udal langile guztiak	- Zenbat egitarautan eta zein jardueramotatan sartu den genero ikuspuntua.
AZ.1.4. Sexuen arabera bereizitako datuak erabili Udalaren informazio sistemetan: estatistika, diagnostikoak, ikerketak, etab.	AZ.1.4.1. Udal sail guztien informazioa kudeatzeko informatika sistemak egokitu, informazioa sexuen arabera bereizi dezaten eta beste hainbat datu egoki ere har dezaten.	Teknologia Berriak	Udal sail guztiak	- Zenbat eta zer-nolako estatistika, txosten edo diagnostikotan zehatu diren informazioa edo datuak sexuen arabera.
	AZ.1.4.2. Biltzen diren datuak genero ikuspuntuaz aztertu, udal sailen egitarauak eta jarduerak hobetzeari begira.	Berdintasan teknikaria, Gizarte Ongizatea	Udal sail guztiak	



1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

1. ARLOA: UDALA

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.1.56. Udalak langileak kontratatu, prestatu eta sustatzean aukera berdintasunezko politika garatzen duela bermatu.	AZ.1.5.1. Aldizka aztertu Udalaren argitalpenak, baldintza-agiriak eta enplegu-eskaintzak, hizkuntzari, hautabideei eta kontratatzeko jardunbideei erreparatuta, berdintasuna bermatzen duten mekanismoak ezartzeko.	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	Udal sail guztiak	- Zenbat eta zer-nolako baliabideak ezarri diren langileak kontratatu, prestatu eta sustatzean berdintasuna bermatzeko.
	AZ.1.5.2. Genero ikuspuntua erabili dirulaguntzen arautegietan eta entitate lizitatzailiek andre-gizonen berdintasunaren aldeko politiketan eta jardueretan duten ibilbidea kontuan hartu.	Alkatetza, Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna	Berdintasun teknikaria, Gizarte Ongizatea, Langileen Batzordea	
	AZ.1.5.3. HAE Erekin hitzartuta, aukera-berdintasunari buruzko ikastaroak eskaini Udalaren prestakuntza egitasmoan.	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	Dirulaguntzak ematen dituzten udal sail guztiak	
	AZ.1.5.4. Oposizioen gaietan aukera-berdintasunari buruzko gai bat gutxienez sartu.	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna	HAE E, udal sail guztiak	
	AZ.1.5.5. Udaletxeko langile eta politikariei aukera-berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaini.	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna	Gizarte Ongizatea, udal talde politikoak	
	AZ.1.5.6. Emakume gutxi dauden lan eremuetan gehiago egon dadin, ekintza positiboak prestatu inor kontratatu aurretik.	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna, Alkatetza	Udal sail guztiak, kargu politikodun guztiak	
	AZ.1.5.7. Etorkezuean egingo diren lanpostuen balorazioetan lanpostuak genero ikuspuntuaz ebaluatu eta aztertu.	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna, Lan-Zerbitzuak	
	AZ.1.5.8. Lanpostuak genero ikuspuntuaz ebaluatu eta aztertu eta emaitzak kontuan hartu datozen lanpostuen balorazioetan.	Gizarte Ongizatea, Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna	Berdintasun teknikaria, Langileen Batzordea	

1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

2. ARLOA: GIZARTE EKINTZA

Helburu nagusia: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ongizate Sailaren jarduera eta egitarauetan genero ikuspuntua sartu.

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.2.1. Gizarte Ongizate Sailaren diagnostiko, plangintza eta esku-hartzeetan genero ikuspuntua sartu.	AZ.2.1.1.. Gizarte Zerbitzuek eta Berdintasun Zerbitzuek jarraipen sistema ezarriko dute, Gizarte Ongizateko Sailaren diagnostiko, plangintza eta esku-hartzeetan genero ikuspuntua sartzeko.	Gizarte Ongizatea	Batzorde Mistoa	- Gizarte Ongizate Sailaren diagnostiko, plan eta esku-hartzeetan zein neurritan dagoen sarturik genero ikuspuntua.
	AZ.2.1.2. Alargundu izateagatik dirusarrera nabarmen murriztu zaien alargunei lehentasuna eman, dirulaguntzak banatzerakoan.	Gizarte Ongizatea	Elkarteak	- Izapidetu diren dirulaguntzak.
AZ.2.2. Gizarte Zerbitzuetara gizonezko gehiagok jotzea sustatu.	AZ.2.2.1. Sentsibilizazio kanpaina egitea, gizonezkoek gizarte zerbitzuetara jo dezaten.	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	Elkarteak	- Gizarte zerbitzuetara datozen gizonezko kopurua.
EM.2.3. Arreta berezia eman emakumeak droga-konsumitzen hasteari.	AZ.2.3.1. Sentsibilizazio kanpaina egin, gizonezkoek baino, gero eta emakume gehiagok hartzen dituzten drogei buruz.	Drogamenpekotasuna aurrezaintzea	Ikastetxeak	- Informazioaren eragina.

3. ARLOA: OSASUNA

Helburu nagusia: Genero ikuspuntua sartu Portugaleteko herritarren osasunarekin zerikusia duen guztian.

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.3.1. Faktore biopsikosozialek emakumeen osasunean eta adin tarte guztietan duten eraginaren berri jakin.	AZ.3.1.1.Faktore biopsikosozialek Portugaleteko emakumeen osasunean eta adin tarte guztietan duten eragina ikertu.	Osasun, kontsumo eta Merkataritza Saila Berdintasun teknikaria	Osakidetzaren osasun zentroa	- Faktore biopsikosozialek emakumeen osasunean eta adin tarte guztietan duten eraginaren berri zein neurritan dugin.

1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

4. ARLOA: ENPLEGUA

Helburu nagusia: Enplegu zerbitzuak andre-gizonen berdintasunera egokitu.

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.4.1. Udalaren Enplegu Sailaren egitarauetan genero ikuspuntua sartzen lagundu.	AZ.4.1.1. Enplegu zerbitzuetako langileei prestakuntza eman, laneratzeko prozesuaren aldi guztietan (informazioa, orientazioa, prestakuntza, laguntza eta jarraipena) genero ikuspuntua kontuan har dezaten.	Barne Jaurpide eta Hiri Segurtasuna	Behargintza, Enplegua eta Ekonomi Sustapena	- Udalaren Enplegu Atalaren egitarauetan genero ikuspuntua zein neurritan dagoen sarturik.
AZ.4.2. Portugaleteko emakume langabetu 35-54 urte bitartekoek lanpostua lortzeko dituzten oztipoak, hala pertsonalak nola profesionalak, jakin.	AZ.4.2.1. Eztabaida-taldeak antolatu 35-54 urte bitarteko Portugaleteko emakume langabetuekin, lanpostua lortzeko dituzten oztipoak, hala pertsonalak nola profesionalak, zeintzuk diren jakiteko.	Gizarte Ongizatea	Emakumeen elkarteak, Behargintza, EIN	- Zenbat eta zer-nolako oztipoak sumatu diren.
AZ.4.3. Emakumeak kontratatzearen abantailen berri eman eskualdeko enpresaburuei.	AZ.4.3.1. Informazio kanpaina antolatu, eskualdeko enpresaburuei begira, emakumeak, oro har, kontrata ditzaten, batez ere tradizioz gizona zkoenak diren lanpostuetan.	Alkatetza	Sail guztiak, sindikatuak, enpresaburuak eta merkataria	- Enpresaburuek zein neurritan daukaten emakumeak kontratatzeko abantailen berri.



1. ardatza - Genero zeharkakotasuna

5. ARLOA: HEZKUNTZA

Helburu nagusia: Udalaren hezkuntza baliabideetan genero ikuspuntua sartzen lagundu.

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	SAIL EDO ENTITATE ARDURADUNAK	ZERIKUSIA DUTEN SAILAK EDO ENTITATEAK	EBALUAZIOAREN ADIERAZGARRIAK
AZ.5.1. Ikasleen aitak animatu, parte-hartze handiagoa izan dezaten ikastetxeen jardueretan eta guraso elkarteetan.	AZ.5.1.1. Kanpaina antolatu, ikasleen aitek parte-hartze handiagoa izan dezaten ikastetxeen jardueretan eta guraso elkarteetan.	Gizarte Ongizatea	Hezkuntza-Gazteria	- IGEk eta ikastetxeek antolatzen dituzten jardueretan parte hartzen duten aita kopurua jakin eta ama kopuruarekin konparatu.
AZ.5.2. Portugaletoko ikastetxeetako hezitzaile, familia eta ikasleei prestakuntza eman, sexu-bereizkeriarik gabeko lan-orientazioari begira.	AZ.5.2.1. Gai honen inguruko mintegia antolatu eta Portugaletoko ikastetxeetako ikasleei, zuzendariei eta ikasleen gurasoei eskaini.	Ikastetxeak IGE	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	- Portugaletoko ikastetxeetako hezitzaileei, familiei eta ikasleei eskaini zaizkien ekintzak, sexismorik gabeko lanbide orientazioa ematekoak, zenbat eta zer-nolakoak izan diren.
	AZ.5.2.2. Sexu bereizkeriarik gabeko lan-orientazioari buruzko lantegiak antolatu eta Portugaletoko ikasleei eskaini.	Ikastetxeak IGE	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	
	AZ.5.2.3. Tradizioz gizezkoak diren lanpostuak dituzten emakume ospetsuen bisitaldiak antolatu Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.	Ikastetxeak IGE	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	
	AZ.5.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen bisitaldiak antolatu, lanpostuak sexuen arabera banatzen ez dituzten enpresetara.	Ikastetxeak IGE	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	
AZ.5.3. Berdintasunaren aldeko hezkuntzaren filosofia udalerrri osoan zabaldu.	AZ.5.3.1. Genero berdintasunaren aldeko hezkuntzari buruzko jardunaldiak antolatu eta Portugaletoko ikastetxeetako guraso elkartei eta irakasleei eskaini.	Ikastetxeak IGE	Gizarte Ongizatea, Berdintasun teknikaria	- Udalerrian antolatutako ekintzak, hezkidetzak hedatzekoak, zenbat eta zer-nolakoak izan diren.
